

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Pristinako dantzen zipriztinak

Independentzia aldarrikatzera eta ospatzera atera ziren Kosovon. Bandera yankiak atera zituzten askok, eta kantuan eta dantzan ikusi genituen beste asko. Amerikako Estatu Batuetako banderena azaldu, esplikatu, analizatu digute atzerri politika adituek eta ez adituek. Nik bandera kontuetaz ezer gutxi dakit eta, independentzia aldarrikapen horretan erabili zen beste sinboloa hartuko dut hizpide, dantza. Pristinako dantzak baditu eta bere zipriztinak.

Pristinako argazkiaren aurrean beste bat jartzera noa. 1990, Belgrad. Yugoslavian gerra bete-betean dago. NATOren indarrek Belgradeko azpiegiturak txikitzeko hegazkinak bidali dituzte. Yugoslaviako gobernua giza babesa antolatu du, herritar zibilak bultzatu ditu bonben jo mugan jartzera eraso-tzaileak kokildu asmoz. Gau horietako batean, zibilek babesten duten zubi bat erakutsi du CNNk. Ez dakigu hotzez ala beldurrez dauden dardarka zubian daudenak. Hiru neska gazte agertu dira irudietan, jantzi tradizionalak dituzte soinean eta dantzan ari dira. *Kolo* bat, borobilean egin ohi den dantza tradizional bat dantzatzen ari dira, eta oso txukun gainera, dantzari bikainak direla antzematen da.

Bonba azpiko dantza haien peskizan ibili da Lynn D. Maners antropologoa. Dantzarien janzkera Serbiako Sumadija nekazal eskualde-



DANI BLANCO

koa da, baina dantzarien prestakuntza onak eta eszenatokira begira findutako dantzakera dotoreak erakusten du Belgrad bertako dantza talde bateko kideak direla.

Europako ekialdean, nazio-estatu moderno formazio prozesuan, dantza komunitatearen iruditeria sortu eta herritarrak sinbolo jakin batzuen inguruan gotortzeko oinarrizko tresna izan da. Zenbait dantza tradizional hautatu eta nazioaren ikur bihurtu dituzte, eta haien goi mailako aurkezpena, dantzatzea, estatu-kontua bailitzan zaindu da. Dantza tra-

dizionalak bere kontestutik atera, eta gizarte zibila antolatzeko eta estatu trinko baten irudia nazioartera zabaltzeko baliatu dira.

Independentzia ospakizunetan zein bonbardaketa gordinenetan dantzan ikusi ditugu. Dantza tresna politikoa izan da Yugoslavian eta hori nola gauzatu eta bideratu den azaldu digute etnokoreologoez eta antropologoez. Euskal nazionalismoaren bilakaeran dantzak jokatu duen paperak eta dantzari emandako erabilerekin ikerketa lan mamitsua egiteko emango lukete. Baina euskal dantzak klinexak bailiran tratatu ditugu: erabili eta bota.

Independentzia festarik ez dakit inoiz ospatuko dugun, baina harrituko nintzateke CNNk dantzan harrapatuko bagintu. Ni behintzat ez nago zubi gainean dantzan hasteko. ■

« Euskal dantzak klinexak bailiran

tratatu ditugu: erabili eta bota.

Independentzia festarik ez dakit

inoiz ospatuko dugun, baina

harrituko nintzateke CNNk

dantzan harrapatuko bagintu



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Lagunek aurrea hartzen didatenean. Usu ger-

tatzen zait-eta, eremu ugarietan. Suertekoa ni holako lagunez inguratuta bizi naizelako, ez baita ohikoa. Josu. Landa Ijurko alegia. Jexux. Tripetatik burura eta hortik biziera ordenagailura eramaten poeta. Tripak jan eta libratutakoa usain atsegineko hori dut poesia. *Trikubarri* nuen diana, *Egunkaria* min eta bertakoak lotsa. Patxi Baztarrikaren aurrekoak, lehenago ere saiatu ziren *Egunkaria* abortatzen eta bere ezintasuna estaltzeko salakuntza gogorak jaurti zituzten publikoki, orain bost urte umekia hazita berau erailtzeko eta guraso zenbait

Ez naiz haserretzen

torturatu eta kartzelaratzeko bide egin zutenak. Denborak leundu dizkie

azalak, baina *Trikubarri* erakutsi du ez direla mugitu orduko lekuetatik eta mendeko ez dituztenei mendekuz oldartzen zaizkiela. Harritzen ninduten Martin Ugalde Parkean elkartasun plantak egiten hedabideetan ikusten nituenean. Harritzen ninduten Del Olmo, Marlaska eta gainerakoak astakeriatzat jotzen zituztenean publikoki, masakratutakoei bizkarrak oratzen zizkietenean. Makila zaharra gordea zuten. Eta *Trikubarri* eman diote dantzatu dezan. Holako laguntzaileekin etsaiak debaldetan ditugu, eta kartzelako ziegak ostatu. ■